

MUGIKORTASUN MAHAIA

Eguna: 2017/01/10

Ordua: 19:30

Bertaratuak:		
Manolo Iturrioz	J.M. Santamaria	Aitor Velázquez
Amparo Diaz de Cerio	Arantxa Fernández	Aitor Escalante
Fermin Sukia	Iñaki Dubreuil	

Etorri ez direnak: Carlos Gonzalez Astiz eta Bildu eta Ordizia Orain taldeetako ordezkariak.

19:45ean 4. mugikortasun mahaiari hasiera eman zaio.

Leire Arandiak karguari uko egin dio. Zozketatik lortutako zerrendako ordezeko mahaikidea Angel Lasa Jauregi izango da. Aitor Escalantek deituko du Angel hurrengo bilerarako. Aipatu da D´Elikatuzeko arduradunak ere mahaiaren parte har lezaketela, turismoaren ikuspuntutik haien ikuspuntua eman dezaten.

- Mahaiak erabaki du D´Elikatuzeko ordezkari bat gonbidatzea mahaiaren hurrengo bilerarako.
- Mugikortasun-mahaiaren 3. bileraren akta onartu da.
- Aurreko bileran adostu moduan, "Malkaskoko" biribilgunearen gaia aztertu da. Aitor Escalantek mahaiari adierazi dio udaltzaingoak balorazio positiboa egiten duela biribilguneaz, bidegurutze hori erregulatzeaz gain, Beasaindik Ordiziara sartzen diren ibilgailuen abiadura moteldu baita. Esan du, orobat, bide-erabiltzaileek normaltasunez onartu dutela biribilgunea. Mahaiaren gehiengoaren iritziz, biribilgunearen obra egin behar da.

Aitor Escalante: herrigunean aparkaleku bat egitearen inguruko proposamena izan du hizpide (Barrena parkean ziur aski). Egingo balitz, herriguneko trafikoa baldintzatuko luke, ibilgailuek aparkalekurako sarbidea eta irtenbidea eduki beharko bailukete.

J. M. Santamaria: esan du aparkalekua garatzea pizgarri oso handia izango dela herriaren gerorako.

Manuel Iturrioz: esan du, ekonomia-kudeaketari erreparatuta, lanak zatika egin beharko liratekeela. Lehenik proiektua; herri-erakundeek funtsezko laguntza emango diguten ikusi behar dugu. Ondoren, eraikitzeari dagokionez, kostuak eta erakundeen parte-hartzea ikusita, aparkalekua egitea komeni den eta egokia den aztertu.

Aitor Escalante: bere iritziz, luze jo dezakeen aparkalekua egiteari itxaron gabe, bestelako neurriak har daitezke egun dauden aparkalekuekin.

Manuel Iturrioz: gogora ekarri du asteazkenetako azoka oso garrantzitsua dela Ordiziarentzat, eta aparkaleku horiek arautzean, azoka egunetan etortzen diren bisitariak hartu beharko lirakeela aintzat.

Iñaki Dubreuil: bat dator Aitor Escalanterekin. Egunditugun aparkalekuekiko neurriak hartu beharko genituzke horiei optimizatze aldera. Esan du, halaber, Ordiziako biztanleriak gora egin duela, eta azken urteotan asko aldatu dela. Haren iritziz, herritar horietako askok ez dute ibilgailurik erabiltzen, eta erosteko ohitura oso zehatzak dituzte. Haren iritziz, gizartearen errealitate hori aintzat hartu behar da mugikortasuna aztertzerakoan.

- Bertan diren guztien iritziz, Santa Anako eta Joseba Rezola etorbideko aparkalekuei erabilera txandakatua eman behar zaie lurpeko aparkalekua egin bitartean. Aipatu da, orobat, Santa Anako aparkalekurako sarbideak hobetu beharko lirakeela.
- Aparkalekuen arteko txandakatzee aukerez eta enpresa adituen aholkuak jasotzeko aukerez ere hitz egin da (Aitor Escalantek Beasaingo TAO sistema garatu duen enpresaren kontaktua eskatuko du).

Mugikortasun-mahaiaren urrengo bilera urtarrilaren 16an izango da, 19:30ean.

Bilera 21:20an bukatu da.